

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea

IPUIN MUSIKALA GARAPEN INTEGRALA SUSTATZEKO HAUR HEZKUNTZAN

Egilea: Jone Virto Herrán

Zuzendaria: Iskandar Rementeria Arnaiz

Leioan, 2021eko ekainaren 1ean

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Marko teorikoa	5
1.1 Musika eta literaturaren garrantzia haurtzaroan	5
1.2 Ipuin musikala Haur Hezkuntzan	7
1.2.1 Ipuin motorraren garrantzia	9
1.3 Ipuin motorrak ipuin musikaletan	10
2. Helburuak	12
3. Metodologia	12
4. Lanaren garapena	14
4.1 Testuinguruari buruzko behaketen datuak	15
4.2 Elkarrizketen datuak	15
4.3 Lehenengo ondorioak	16
4.4 Esku-hartzea	17
5. Emaitzak eta ondorioak	20
6. Etika profesionala eta datuen babesa	25
7. Erreferentzia bibliografikoak	26
 ERANSKINAK	 29
1. Elkarrizketak	30
2. Irakaslearen egunerokoaren eredia	37
3. Esku-hartzearen saioak	38
4. Herri Berri proiektuaren taula	69
5. Proiektuen ebaluazio adierazleen emaitzak	74
6. Hobekuntza proposamenak	78

IPUIN MUSIKALA GARAPEN INTEGRALA SUSTATZEKO HAUR HEZKUNTZAN

Jone Virto Herrán
UPV/EHU

Gradu Amaierako Lan honetan, mugimenduan oinarritutako, ipuin musikalak Haur Hezkuntzako tresna pedagogiko gisa dituen hezkuntza onurak arakatu nahi dira, curriculumean agertzen diren gaitasunak kontuan hartuz. Gainera, Covid19-aren egoera dela eta, behatutako ikastetxearen metodologian egondako murrizketak kontuan izanda, mugatutako musika saioak, proiektuetan eta zirkulazio librean oinarritutako ikaskuntza edota diziplinartekotasuna, indartzen saiatu gara, 5 urteko gela batean esku-hartze bat inplementatuz. Beraz, GRAL honetan metodologia kualitatiboaz baliatu eta behaketak, elkarrizketak eta irakaslearen egunerokoa erabili dira. Azkenik, emaitza eta ondorioei dagokienez, frogatu da curriculumaren alderdi ezberdinen integrazioa modu ludiko eta sortzaile batean indartu dela, ikaslearen garapen integrala erraztuz. Gutxiago landu diren curriculumeko kompetentzia eta baliabide faltari buruzko hobekuntzak ere aipatu dira.

Ipuin musikala, garapen integrala, mugimendua, diziplinartekotasuna, sormena.

En este Trabajo de Fin de Grado, se pretende analizar los beneficios educativos del cuento musical, basado en el movimiento, como herramienta pedagógica en Educación Infantil, teniendo en cuenta las competencias que aparecen en el currículo. Además, debido a la situación del Covid19, teniendo en cuenta las restricciones en la metodología del centro observado, hemos tratado de reforzar las sesiones musicales limitadas, el aprendizaje basado en proyectos y en la libre circulación y la interdisciplinariedad, implementando una intervención en un aula de 5 años. Así, en este TFG se emplea una metodología cualitativa, utilizando observaciones, entrevistas y el diario del profesor. Por último, en cuanto a resultados y conclusiones, se ha demostrado que la integración de los diferentes aspectos del currículo ha sido reforzada de una manera lúdica y creativa, facilitando el desarrollo integral del alumnado. También se mencionan mejoras sobre la falta de recursos y las competencias menos trabajadas.

Cuento musical, desarrollo integral, movimiento, interdisciplinariedad, creatividad.

In this Final Degree Project, the aim is to explore the educational benefits of musical stories, based on movement, as a pedagogical tool in Early Childhood Education, taking into account the competences appearing in the curriculum. Furthermore, due to the situation of Covid19, taking into account the restrictions in the methodology of the centre observed, we have tried to enhance and reclaim the limited musical sessions, project- and free movement-based learning and interdisciplinarity, implementing an intervention in a 5 year old classroom. Therefore, in this FDP, qualitative methodology is utilised, using observations, interviews and the teacher's diary. Lastly, regarding results and conclusions, it has been shown that the integration of the different aspects of the curriculum has been reinforced in a playful and creative way, promoting students' comprehensive development. Improvements on the lack of resources and on the less worked curricular competences are also mentioned.

Musical story, comprehensive development, movement, interdisciplinarity, creativity.

SARRERA

Musika oso arlo garrantzitsua da haurren garapenerako. Norbanakoaren garapen integralean laguntzen du, kultura, denbora-pasa eta adierazteko modua izanda. Gainera, umeei txikitatik irakurtzeko zaletasuna pizteko modu aproposena ipuinen bitartez da. Ipuin hauek musikaz laguntzen baditugu bizipen adierazkorragoa emango diote istorioari. Hori eginez, umeak nagusitzen doazen heinean, irakurketaz gozatzeaz eta hau estimatzeaz gain, musika egoerak, jarrerak eta emozioak transmititzen dituen hizkuntza artistiko moduan ere baloratuko dute. Ildo beretik, ipuin musikalaria gorputz-adierazpena gehituz, dibertitu, motibatu eta sormena bultzatzeaz aparte, diziplinartekotasuna lantzeko oso baliabide aproposa bihurtuko litzateke.

Horrez gain, musika minorra egin ostean eta musikak haurrak txikiak direnean duen garrantzia ikusi ondoren, gaian sakontzen jarraitu nahi nuela argi izan nuen. Hortaz, eskoletan lantzen den gaia bada ere bere presentzia ez da oso nabarmena, eta are gehiago Covid19aren egoeraren ondorioz. Izan ere, zenbait eskoletan musika ikasgaia eta musika gelak alde batera utzi dituzte.

Orduan, gaia ikertu ondoren, 237/2015, abenduaren 22ko Haur Hezkuntzako Dekretuan zehazten den xedea lortzeko esku-hartze bat diseinatzea eta inplementatzea erabaki dugu. Haur guztien garapen osoa eta orekatua lortzen laguntzea da HH-ko helburua, garapen horren dimentsio guztietan. Oinarrizko konpetentziak garatuz lortu nahi da hori, betiere konpetentzia bat baino gehiago aldi berean ikasiz. Metodologia hori globalizatzailea eta adierazgarria izango da eta hurrengo printzipioetan oinarrituko da: aniztasuna, umeen bizipenak eta ezagutzak, indibidualizazioa, sozializazioa, konfidantza eta ziurtasuna, malgutasuna, jolasa, esperimentazioa, hizkuntzaren trataera eta motibazioa. Irakaslearen rola bitartekaria, gidaria edo laguntzailea izatean oinarrituko da.

Beraz, GRAL honetan Haur Hezkuntzako haurren ikaskuntzarako aberasgarria den eta mugimenduan oinarrituta dagoen ipuin musikale baten onurak aztertuko dira, eta horren lanketarako esku-hartze bat sortuko dugu, hainbat atal bereiziz:

Hasteko, musikak eta literaturak haurtzaroan duten presentzia eta, ildo beretik, ipuin musikalek duten garrantzia azpimarratuko da, zenbait adituen iritzietan oinarrituz. Horrez gain, ipuin musikalen onurak eta, mugimenduaren arloarekin lotuz, ipuin motorren ezaugarri batzuk ere azalduko dira.

Horren ostean, lanaren helburu nagusia aipatuko da. Ondoren, metodologiaren atalean, metodo kualitatibo batez baliatuz eta HH-ko curriculumeko metodologiarekin alderatuz, sortutako esku-hartzearen metodologia eta hau burututako ikastetxearena azalduko dira.

Bestalde, lanaren garapenean, esku-hartzea, sortutako ipuin musikala eta diseinatutako jarduerak osotasunean aurkeztuko dira. Gainera, esku-hartzearen jardueren analisisa egingo da, curriculumeko konpetentziekin erlazionatuz.

Azkenik, ondorioei dagokienez, alde batetik, helburua bete den ala ez egiaztatuko da. Beste aldetik, diseinatutako esku-hartzea, jarduerak eta baliabideak erabilgarriak izan diren ala ez aztertuko da, eta aproposak ez izatekotan hobekuntza proposamenak azalduko dira. Beraz, ikasle-irakasle ikaskuntza-prozesuaren inguruan hausnartuko genuke. Hori guztia curriculumeko helburu eta edukietan oinarrituz.

Orduan, gure proposamena musikazko eta sormenezko estimuluekin erlazionatuta dagoen eta garapen psikomotor, sozio-afektibo eta kognitiboa ekartzen duen ipuin musikalaren inguruko azterketa egitea da, haren onurak ikertuz eta praktikan jartzeko esku-hartze bat diseinatuz. Esku-hartzea aurrera eramatean, ipuina eta musika hartuko genituzke abiapuntutzat, baina horrez gain, sortutako ipuin musikalaren antzezpena egitearen ondorioz, mugimenduak eta gorputz-adierazpenak ere garrantzia hartuko lukete. Covid19-aren egoeraren ondorioz, protokoloak mantentzera eta ezarritako neurriak errespetatzera moldatuko genituzke jarduerak.

Amaitzeko, ikasleen konpetentzien ebaluazioa, oinarritzko konpetentziak kontuan hartuta, jarraitua eta prestakuntzazkoa izango da. Lanean metodologia kualitatiboa erabiliko denez, tresna zehatzetaz baliatuko gara. Esaterako, testuinguruaren eta haurren behaketa zuzena eta sistematikoa eta irakasleei egindako elkarrizketak, non, ikastetxearen metodologia, printzipio eta helburuak islatuta agertuko diren. Horrela, lanaren metodologia, ikastetxearena, HH-ko curriculumarena eta diseinatutako esku-hartzearena bat egin dezaten. Aurrean aipatu dugun moduan, irakaskuntza-prozesua ebaluatuko da baliagarria den ala ez egiaztatzeko, eta ez izatekotan, nola hobetu daitekeen ikasteko erabiliko genuke.

1. MARKO TEORIKOA

1.1 Musika eta literaturaren garrantzia haurtzaroan.

Ezinbestekoa da haurtzaroan zehar musika eta literatura bezalako oinarrizko hezkuntza baliabideak lantzea. Bi hauek haurrak gehiago askatzera bultzatzeaz gain, bakoitzaren nortasuna, sormena, inteligentzia, hiztegia, irudimena, hizkuntza eta ahozko adierazpena aberasten dute.

Alde batetik, literaturak oso paper garrantzitsua dauka hezkuntzan, umearen garapen globalera hoberen moldatzen den testu mota baita. “De todos es sabida la tremenda importancia que tiene la literatura infantil en todas sus manifestaciones durante los primeros años de vida de un niño” (Arteaga et al., 1997a, 63.or.). Haurtzaroaren lehenengo etapa honetan askotariko literatura dago: abestiak, poemak, irudiak, atsotitzak, aho-korapiloak, asmakizunak, alegiak, eta garrantzitsuenak, ipuinak. Azken horri dagokionez, Encabo-Fernández eta Jerez-Martínez-en (2009, apud Bermejo, 2014, 16.or.) hitzetan, “puede que sea la más importante manifestación cultural y social en el ámbito infantil”. Ruiz Omeñaca-ren arabera (2011a, 17.or.), ipuina fikziozko gertakizun baten inguruko narrazio laburra da, ahozkoa edo idatzizkoa, non normalean pertsonaia gutxi parte-hartzen duten. Ipuin bat kontatzeak eta lantzeak onura asko ditu, bai pedagogikoki (arreta, hiztegia, komunikatzeko gaitasuna, baloreak, etab. indartzen ditu), bai terapeutikoki (arazoak konpondu daitezkeela erakusten du) eta bai ludikoki, giro lasaia eta eroso sortuz.

Horrez gain, ipuinek haurraren nortasuna eta munduaren ezagutza eraikitzen dute. Ipuinetan bizipenak, fantasiak edota esperientziak kontatzen dira, fantastikora eta errealerara gerturatze bat erraztuz. “Los cuentos son el lenguaje que mejor entienden los niños y las niñas, porque son su inmejorable mapa afectivo, hagamos que se les permita vivirlos, hablar de ellos, dibujarlos, representarlos” (Abril, 2002, apud Arguedas, 2006a, 7.or.). Taberner et al.,-ek (2016a 217.or.), ipuinen ezaugarrien eta gaitasunen artean, haurrentzako material pedagogiko estimulagarrienetako bat direla azpimarratzen dute: haien beharretara erantzuten dutelako, eskola bizitza errealerara hurbiltzen dutelako, folkloreak elementuak aprobetxatzen direlako, estimulu ludikoz beterik daudelako eta hizkuntza eta komunikazio-gaitasunaren garapenean laguntzen dutelako.

Gainera, ekintza dibertigarri batean bihurtuz, irakurketaren inguruko zaletasuna haurrengan piztea lortuko luke eskolak. “La necesidad de la lectura es evidente cuando

toda la enseñanza y el aprendizaje están basados en ella” (Parra, 2008, apud Taberero et al., 2016b, 217.or.). Irakurketa ikaskuntza-iturria izan behar da, baina ez hizkuntza-mekanizazioa eragiten duten praktiken bidez, baizik eta ikasleen interesa berenganatzen duten eta tartean sartzen dituzten proposamenen bidez, irakasgai ezberdinen estrategiekin eta ezagutzekin uztartuta daudenak (diziplinartekotasuna). Laburbilduz, irakastea eta dibertitzea da ipuinen helburu nagusia.

Beste aldetik, musika oso elementu garrantzitsua da pertsonen bizitzan, soinu eta zaratez beteriko unibertso batean bizi garelako. Musika ere ezinbesteko elementua da haurraren garapenean; mundua deskubritzen, komunikatzen, pertzepzio auditiboa garatzen, bere imajinazioa erabiltzen, hitzekin ezin duena azaldu espresatzen eta gozatzen laguntzen diolako.

Pound eta Harrison-ek (2003, apud Heras, 2009, 8.or.) diotenez, Europan eta Estatu Batuetan egindako hainbat ikerketek baieztatu dute musikarekin kontaktuan dauden umeek errendimendu akademiko hobea dutela. Hori musika hizkuntzak garapenaren esparru guztiak jokoan jartzen dituelako da:

- Gaitasun kognitibo eta intelektualak: kontzentrazioa, sormena, hizkuntzen lorpena, arrazoiketa matematikoa...
- Gaitasun motorrak: erritmoa eta mugimendua.
- Oreka pertsonal eta afektiboa: interpretazioak eta barneratzeak pertsonen arteko harremanentzat eta nortasunaren garapenarentzat mesedegarriak dira.
- Sozializazioa: taldeka abestea, talde instrumentalak, edota ikaskuntza soziala suposatzen duten ekintzak.

Palacios-en (2000, 15.or.) hitzetan oinarrituta, ipuinak eta musika guztiz antzekoak dira hurrengo arrazoiengatik:

- Esperientzia atseginak eta aldi berean hezitzaileak irudikatzen dituzte, haurrak dibertitu egiten baitira kontzeptuak ikasi eta trebetasunak garatzen dituzten bitartean (Dibertsioa + Hezkuntza).
- Gauzak bere unitatean eta bere zatietan behatzeko aukera ematen dute.
- Arreta mantentzea eragiten dute, eta ondorioz kontzentrazioa, hausnarketa eta parte-hartzea lantzeko aukera ematen dute.

- Entzuleei irudimena areagotzen duen giro magikoa eskaintzen diete.

Musika irakurketan sartzeak, beste modu batean sortu ezingo liritekeen sentsazio ugari eragiten ditu. “Feedback” moduko bat sortzen dela esan daiteke; musikak irakurtzera gonbidatzen gaitu, eta irakurketak musikaz goatzera eta adierazpen-modu batean baloratzera eramaten gaitu. Gainera, musikaren eta literaturaren arteko loturak hezkuntza balio ezberdinen ikaskuntzara bultzatzen ditu haurrak.

1.2 Ipuin musikala Haur Hezkuntzan

Literaturak eta musikak dituzten funtzioak, Haur Hezkuntzako haurrei egin ahal dizkieten ekarpenak eta haien beharretara eta berezitasunetara nola egokitzen diren kontuan hartuta, interesgarria litzateke bien arteko lotura planteatzea. Hori lantzeko, ipuin musikala oso baliabide egokia da.

Por lo que he podido estudiar, creo que la fórmula cuento-música es una de las mejores. El lenguaje musical y el oral se llevan muy bien. El cuento hace que los niños se mantengan atentos. Debemos intentar que la imaginación y el oído se involucren, de alguna manera (...). Por otra parte, narración y música tienen algunas características idénticas: la entonación, el timbre, el ritmo, la pausa, el volumen (...). Los tiempos dramáticos se pueden unir para que el cuento y la música produzcan una experiencia complementaria. (Palacios, 1995, apud Homem de Almeida eta Muñoz Sobrino, 1997a, 9.or.).

Vicente-Yagüe eta González-ek (2015, 6.or.) baieztatzen dute, alde batetik musika eta literatura tekniken bidez, jakintza-alorrarteko modu batean lan egiteak haurren ikaskuntza-garapenean onurak ekartzen dituela; kreatibitatea piztuz, originaltasuna sustatuz eta baita ikaslearen autoestimua areagotuz. Beste aldetik, irakurtzeko zaletasuna eta gaitasun linguistikoa bultzatzen dira. Umearen parte-hartze aktiboa eta lanen ulermenera sarbide esanguratsua lortzen da.

Encabo-Fernández eta Rubio-ren (2010a, 95.or.) aburuz, ipuin musikala narrazio musikalizatu bat da. Hau da, ekintza eta sentimendu jakin batzuen soinu eransketaren eta adierazpenaren bitartez indar handiagoa hartzen duen kontakizuna. Narrazioari musika gehituz, ipuina zentzumenez hornitzen duen kohesioa eta koherentzia sortzen da.

Gainera, ipuin musikalak Haur Hezkuntzako curriculumaren alderdi ezberdinen integrazioa modu ludiko eta sortzaile batean bultzatzen du, arlo sozio-afektibo, psikomotor eta kognitiboaren estimuluen bidez ikaslearen garapen integrala erraztuz. “La unión del cuento y la canción, reúne todas las condiciones para favorecer el ámbito

cognoscitivo, el social-afectivo, el sensorial-motriz, y consecuentemente, la formación integral del alumnado” (Muñoz, 2003, apud Lorite, 2012, 1.or.).

Haurtzaroan hain bereizgarria den jolas hori ezinbesteko estrategia metodologiko bihurtzen da ikaskuntza esanguratsuetan; horregatik, ipuin musikalaren parte da, batekotasunaren sinonimoa baita eta, aldi berean, elementu sortzailez beteta baitago.

Horrez gain, estrategia metodologiko honen bitartez, haurrek haien sormena eta irudimena garatzen dute, ikasten dute, haien identitate pertsonala eraikitzen dute, eta haien emozioak, munduaren ezagutza eta haien errealitatearen ikuspuntua adierazten dute. Ildo beretik, ipuin musikalak, erlazio, komunikazio, errealitatearen errepresentazio eta emozio-kudeaketa tresna moduan balio du.

Homem de Almeida eta Muñoz Sobrino-k (1997b, 9.or.) aurkezten duten moduan, ipuin musikalak bi helburu nagusi betetzen ditu:

1. Musika entzumen erabiltzea curriculumaren beste alderdi batzuk lantzeko.
2. Entzutea, ezagutzea, erreproduzitzea eta musikaz gozatzea, haurren adinarekin bat egiten duten pasarteak hautatuz.

Hori dela eta, esan daiteke ipuin musikalak umeen arreta, irakurmena, koordinazioa, memoria musikala, instrumentuak ezberdintzeko gaitasunak, etab. garatzen laguntzen duela.

Arguedas-ek (2006b, 20.or.) ipuin musikalaren ekarpenei dagokienez hurrengoa gehitzen du:

- Ipuin musikalen bidez, haurrek gorputz-lana lantzen dute; haiekiko, beste pertsona eta izaki bizidunekiko eta baita objektuekiko.
- Haien barne eta kanpo munduaren komunikazioa hobetzeko adierazpen-gaitasuna indartzen dute. Haien sentimenduak eta nahiak adierazteko gai izatearen ondorioz, umeen eta nagusien arteko elkarrekintza positiboagoa lortzen da eta haien ingurukoekin erlazioak hobera egiten du.
- Haien kideen ezberdintasunak errespetatzen dituzten izaki bizidun sentikor eta sortzaileak garatzen dira.
- Guztiak diren proiektuen sorkuntza, elkarlanean aritzearen beharra eta partekatzearen plazerra berenganatzen hasten dira umeak. Oso alderdi

garrantzitsuak, kontuan izanda etapa hauetan zehar ikasleak haien egozentrismoagatik eta haien buruaz bakarrik kezkatzeagatik bereizten direla.

- Banakako sormenaren estimulua lantzen da: instrumentuak edo objektuak manipulatzeko, mugimendu edo gorputz-soinuak esperimendatzeko, melodia txiki bat inprobisatzeko, istorio batekin amestean...
- Curriculumaren osagarri ezberdinak integratzen dira, modu ludiko eta sortzaile batean.
- Haurren garapen integrala lortzen da, arlo sozio-afektiboa, psikomotorra eta kognitiboa estimulatu.

Horretaz aparte, Encabo-Fernández eta Rubio-k (2010b, 96.or.) defendatzen dute ipuin musikalak balore-hezkuntza, matematikaren irakaskuntza, eremu fisiko eta sozialaren ezagutza, hizkuntza eta literaturaren ikaskuntza eta sormenaren eta gaitasun artistikoaren garapena lantzeko baliagarriak direla. Lehen aipatu dugun moduan, hori guztia modu ludiko batean, non ikaslea prozesu osoaren protagonista den eta parte-hartzea bultzatzen den.

1.2.1 Ipuin motorra

Aurrean azaldu dugun bezala, musika hizkuntzak garapenaren esparru guztiak jartzen ditu jokoan. Haien artean, erritmoa eta mugimenduaren lanketaren bidez, besteak beste, gaitasun motorrak aurkitzen dira. Gaitasun motorrak garatzeko ipuin motorra oso baliabide egokia da. Gainera, ipuin motorra arlo ezberdinen metodo globalizatzaile modura erabili ahal da, hainbat arlotara bideratu daitekeelako, kasu honetan musikaren arlora. Ipuin bat motorra izateko, jarduera motorrak, hau da mugimenduak, eragiten dituzten ekintzak gehitu behar zaizkio.

Ruiz-Omeñaca-k (2011, 19.or.) ipuin motorra argumentu xumea duen eta irudizko agertoki batera bidaltzen gaituen narrazio laburra bezala definitzen du. “Este tipo de cuento podemos clasificarlo como una variante del cuento cantado y del cuento representado, podríamos denominarlo como cuento jugado, con unas características y unos objetivos muy específicos” (Conde-Caveda, 2001a, 14.or.).

Ipuin motorrak duen onura nagusienetako bat ikaslearengan pizten duen motibazioa da; izan ere, haurrak ipuin bat entzuten duenean, ipuinaren eszenak irudikatzen edota interpretatzen ditu bere buruan. Baina ipuin motorrek, ipuina entzutean, haurrak buruan

egiten dituen irudi edo irudikapen mentalen protagonista bihurtzen dute. Modu aske eta ausarta da, energiaz betetako haurrak bere emozio eta sentimenduak adierazteko eta bere irudimena hedatzeko. Hori gorputz-adierazpenaren eta mugimenduaren bidez lortzen da. Arteaga et al.,-ek, (1997b, 32.or.) defendatzen duten moduan, gorputz-adierazpena, gorputzaren mugimenduaren presentzian, kontzientzian eta bizipenean zentratuta egon behar da. Eboluzio-garapenean oinarrituta, umeak bere gorputzaren kontzientzia hartu behar du, nahitako eta sormenezko modu batean, adierazteko eta komunikatzeko.

Gainera, curriculum-dukien irakaskuntzan ikasleen ikasteko eta ezagutzeko interesa eta gogoak pizteko askotariko baliabide eta metodologia berriak erabiltzeko larritasuna gero eta handiagoa denez, “es propicio utilizar una metodología basada en el juego y en la acción y no abusar de las actividades pasivas o estáticas. De esta manera se estará promoviendo el desarrollo integral” (Viciano, 2003, apud Otones de Andrés eta Lopez, 2014, 28.or.). Hortaz, eskuragai dauden baliabideak ikasleek momentuan dituzten beharretara eta interesetara egokitu beharra dago. “El juego, la canción y el cuento son medios tradicionales que han demostrado sobradamente su valía en la escuela durante muchas generaciones” (Alías, 2011, apud Tabertero et al., 2016c, 216.or.).

1.3 Ipuin motorrak ipuin musikaletan.

Conde-Caveda-ren (2001b, 20.or.) arabera, ipuin motorretan, musika-, plastika-, eta gorputz-arloak landu daitezke, gorputzarekin loturiko edukiak eta beste ikasgaietako edukien arteko diziplinartekotasuna lortuz, eta horrela irakaskuntza globalizatuz. Beraz, ipuin motorrak lantzeak ez du esan nahi soilik konpetentzia motorrak landuko direnik, baizik eta irakaskuntza arlo guztietara globalizatuko dela eta umeen esperientziak aberasgarriagoak bihurtuko direla. “Los cuentos vivenciados corporalmente por los niños, a través del movimiento, refuerzan la percepción profunda de los contenidos que pretendemos que elaboren y asimilen” (Serrabona, 2008, 62.or.).

Hori kontuan hartuta, metodo egokia litzateke, kasu honetan, ipuin motorra praktikan jartzea ipuin musikala lantzen dugun aldi berean. “Los cuentos motores son cuentos que, al ser narrados y con ayuda de la música, propician una amplitud inherente de movimientos, juegos, simulaciones y dramatizaciones” (Iglesia, 2008, apud Tabertero et al., 2016d, 217.or.).

Ildo beretik, dantzak eta mugimenduak errespetua, askatasuna eta tolerantzia bezalako baloreak sustatzen dituzte. Horien bidez, sentimenduen, ideien eta emozio-egoeren

komunikazioa piztu egiten da. Umeek espontaneitatez eta alaitasunez egiten dituzte dantzatzeko eta abesteko jarduerak. Azken horrek adierazpen-aniztasuna eta hizkuntza aberastea dakar, eta biek ere arlo psikomotorra, entzumena, autoestimua, pertsonen arteko harremanak eta sormena suspertzen dute. Horrez gain, musikaz lagundutako gorputzarekin erlazionatutako jarduera hauek garatzeak onurak ekartzen dizkiete alderdi biologikoei, kognitiboei eta psikomotorrei. Mugimenduaren plazerak eta alde ludikoak adierazkortasuna bilatuz, energia askatzera bultzatzen ditu umeak. “La expresión corporal busca facilitarle al ser humano, el proceso creativo y de libre expresión y comunicación a partir del conocimiento de su cuerpo, el manejo del espacio, de los materiales y del fortalecimiento de su auto-confianza” (Arguedas, 2004, apud Arguedas, 2006c, 14.or.).

Horri esker, irakasleek, oinarrizko abilezien eta gaitasunen garapena, irudimena, sormena, emozio eta sentimenduen garapena, garapen kognitiboa, afektibo-soziala, garapen sozializatzailea, eta besteekiko eta norberarekiko errespetua bezalako balio moralen garapena ikus dezakete.

237/2015, abenduaren 22ko Haur Hezkuntzako Dekretuan aipatzen den bezala, Haur Hezkuntzako etaparen helburu nagusia ikasleak bultzatzea da, bizitzako gainerako etapetan lantzen jarraituko dituzten oinarrizko kompetentziak (zeharkakoak nahiz espezifikokoak) garatzen has daitezen. Haur Hezkuntzako curriculumak esperientzia-eremutan antolatzen da, haurren garapen globalari laguntzeko. Haur Hezkuntzaren esperientzia-eremuak bi dira:

- Norberaren nortasunaren eta ingurune fisiko eta sozialaren eraikuntzaren eremua.
- Nortasunaren eraikuntza eta komunikazio eta adierazpenaren eremua.

Beraz, kasu honetan, ipuin motorraren zenbait ezaugarri barruan dituen ipuin musikal bat erabiliz kompetentzia artistikoa eta motorra landuko lirateke, batez ere. Bi kompetentzia hauek nortasunaren eraikuntza eta komunikazio eta adierazpenaren eremuaren barruan daude.

Eremu honetan txertatzen diren lengoaien artean, diseinatutako esku-hartzean, artistikoa, musikala eta gorputz-lengoaia daude bereziki. Arte-hizkuntzaren bidez, haurrek errealitatea arakatzen dute, errealitateaz duten ezagutza adierazten dute, haien emozioak eta sentimenduak adierazten dituzte, haientzat berriak diren abileziak eta trebetasunak eskuratzen dituzte, eta irizpide estetikoak eta sormena lantzen hasten dira. Musika-hizkuntzaren bidez, hainbat ahalmen lantzen dira; hala nola, pertzepzioa, erritmoa eta

kantua, soinudun objektuen eta tresnen erabilera, gorputzaren mugimendua, entzute arretatsuak, probek, eskuen erabilerak eta soinuekin eta musikarekin egiten diren jolasek dakarten sormena, etab.

Gorputz-hizkuntzak, adierazpenaren dimentsioari bidea eman eta haurren bizipen emozionalak azaleratzen ditu. Haurrak gero eta hobeto egokituko ditu, ingurunearekiko harremanean, izaten dituen bizipenak. Umeek, objektuekin jolastuz eta munduaren eta niaren arteko harreman etengabea, munduarekin elkarrekintzarako bitartekoa den norberaren gorputza deskubritzen dute, eta gero eta zehaztasun handiagoz erregulatzen dituzte haien ekintzak.

2. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia, mugimenduan oinarrituta dagoen eta haurren ikaskuntza garatzeko aberasgarria den ipuin musikalaren onurak arakatzea da.

Horretarako, Haur Hezkuntzako 5 urteko gela baten metodologia (proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, zirkulazioa librea eta diziplinartekotasuna, besteak beste), honen ikastetxearena eta Haur Hezkuntzako dekretuan agertzen diren gaitasunak kontuan hartuta, esku-hartze bat diseinatu, implementatu eta ebaluatuko da.

3. METODOLOGIA

Gradu Amaierako Lan hau aurrera eramateko, lehenik eta behin musikaren, ipuinen eta mugimenduaren gaien garrantziaren inguruan hainbat artikulu, liburu eta informazio iturri bilatu ditugu. Testuinguruan kokatu ostean, Haur Hezkuntzako etapan musika, irakurketa, gorputz-adierazpena eta irudimena lantzeko baliabideak eta materialak ikertu eta hautatu ditugu. Hori dela eta, batez ere ipuin musikalen, eta horren ostean, ipuin motorren inguruan ere aztertzen aritu gara.

Gradu Amaierako Lan honetan planteatutako helburua lortzeko asmoz, metodologia kualitatiboaz baliatuko gara. Horrek tresna zehatzak erabiltzea suposatuko du, hala nola, behaketak eta elkarrizketak.

Kasu honetan, **behaketa** aldeztu aurretik eta sistematikoki egindako eta egituratutako nahitako prozesu bat izango da, funtzio nagusia, aztertutako prozesu eta ikasleei buruz, informazio esanguratsua biltzea izango duena. Lanaren helburua ipuin musikalaren onurak aztertzea dela kontuan hartuz, behaketak batez ere esku-hartzea ebaluatzeko erabiliko dira. Piéron-ek (1998, 6.or.) behaketa, gertatzen dena begiratzea, erne egotea,

portaera identifikatu eta baloratzeko gaitasuna eta sentsibilitatea baino zerbait gehiago eskatzen duen trebetasun berezizat hartzen du.

Aldez aurretiko behaketa egin da, testuingurua eta gelaren ezaugarriak aztertzeko asmoz. Kontuan hartuta zirkulazio librean, proiektuetan eta metodo globalizatzaileen oinarritzen den ikastetxea dela, Covid19-aren egoeraren ondorioz, momentu honetan zenbait arlo ez dira osotasunean lantzen. Hau da, ez dago musika eta psikomotrizitate saiorik, eta hori dela eta gai hauen lanketa asko murriztu da. Musika gela eta saiorik ez dagoenez, ez da musika ekintzarik behatzeko aukera egon.

Bigarrenik, ikastetxearen eta ikasgelaren testuinguruan sakontzen jarraitzeko asmoz, bi irakasleei egindako **elkarrizketak** eta umeekin egindako solasaldiak kontuan hartuko dira. Alde batetik, haurrekin egindako solasaldi hori jarduerak amaitu ondoren programaren funtzionamenduari buruzko gogoeta eskaintzen digun tresna da, hobetzeko moduak identifikatzen eta egoera edo zailtasunei aurre egiteko estrategia berriak garatzen laguntzen duena. Horretarako, haurrekin egindako asanbladetan jasotako informazioa bildu eta aztertuko da. Beste aldetik, irakasleei haien esperientzia eta lan egiteko moduaren inguruko hainbat galdera egingo zaizkie, idatzita ere erregistratuko direnak (*ikusi 1.eranskina*).

Lanaren planteamendua kontuan hartuta bi elkarrizketa egingo ditugu; lehenengoa ikasgelako tutoreari eta bigarrena psikomotrizista den irakasle bati.

Lehenengo elkarrizketan ikastetxe mailan eta ikasgelan erabiltzen den metodologiaren eta horren helburu, onura eta garapenaren inguruan, metodologia horren eta Haur Hezkuntzako curriculumaren erlazioari buruz, irakasle-rolagatik, ikastetxe eta familien erlazioari buruz eta sormena lantzeko eta ebaluatzeko moduaren inguruan galdetuko da. Horrez gain, musikaren gaian eta ikastetxean dagoen musikaren presentziaz eta lanketaz hitz egingo da eta zenbait iritzi pertsonal ere eskatuko dira, besteak beste. Galdera irekiak izango dira, irakasleak erantzunak ondo azaltzeko eta galdetzen zaizkion gaietan ondo sakontzeko aukera emateko.

Bigarren elkarrizketari dagokionez, psikomotrizitatean aditua den irakaslearekin hitz egitea erabaki dugu, mugimendua planteatutako ipuin musikolari buruzko esku-hartzearen alderdi garrantzitsua delako. Hortaz, lana egokitasunez aurrera eramateko, garrantzitsua izango da aztertzea ikastetxean gai honek duen presentzia eta lantzeko modua. Aurrekoan bezala, elkarrizketa honen galderak ere irekiak izango dira eta

hurrengo gaiei buruz hitz egingo dugu: psikomotrizitate, mugimendu eta gorputz-adierazpenaren arloei begira, ze metodologia eta jarduera mota erabiltzen dituzten Haur Hezkuntzan lan egiteko, metodologia horren eta Haur Hezkuntzako curriculumaren arteko erlazioa, irakaslearen rola zein den, saioen antolaketaren, onuren eta helburuen inguruan, sormena lantzeko moduari buruz eta zenbait iritzi pertsonalei buruz.

Azkenik, bildutako informazio guztiaz baliatu eta musikaren, diziplinartekotasunaren eta mugimenduaren arloetan egondako murrizketa horiek indartzen saiatzeko ikastetxeari eta ikasgelari onuragarria izango zaion esku-hartze bat diseinatuko da. Esku-hartzea burutzen den bitartean, behaketarako erregistroak eramango dira, eta gertaera eta jarrera aipagarrienak biltzeko **“irakaslearen egunerokoa”** erabiliko da (*ikusi 2.eranskina*).

Irakaslearen egunerokoa gertatutakoa idazteko tresna da. Hau da, kontaktaren bidez, izan diren jarrerak, adierazi diren edukiak eta jarduera bakoitzaren emaitzak jasotzen dira. Souto-k (1998, 265.or.) aipatzen duen moduan, irakaslearen egunerokoa irakaslearen jardueraren inguruko hausnarketa-tresna da. Horrela, jarduerak egiteko orduan, idatzi horiek gela barruan ikasleekin izandako harremanak, ebaluaketa edukiak eta erritmoak edota oztopo instituzionalak hobeto ulertzeko lagungarriak izanez. Beraz, esan daiteke behaketa hauek ebaluatzeko zuzenduta daudela.

Horrez gain, behaketarako taulak erabiliko dira, non ebaluazio adierazleak agertu eta emaitzak jasoko diren, helburuak lortu diren ala ez adieraziz (*ikusi 5.eranskina*). Hautatutako helburu eta kompetentziekin lotuta dauden ebaluazio adierazleak hurrengoak dira: lankidetzaren eta enpatia bezalako baloreak garatu, gelan giro positiboa sortuz, emozioak adierazi eta kudeatzeko gai den bitartean. Musikarekin gozatu, musika-tresnen ezaugarriak ezagutu eta erritmoak jarraitu. Gorputz-adierazpenaren bitartez, mugimendua kontrolatzeko gai izatea, irudimena eta sormena garatzen duen aldi berean. Hizkuntza idatzira hurbilketa landu, logika-matematika adierazpen batzuk erabili eta ipuinaren irakurketaz baliatuz, arreta, hiztegia eta komunikatzeko gaitasuna areagotu.

4. LANAREN GARAPENA

Atal honetan jasotako lehenengo datuak azalduko dira, testuinguruko behaketak eta elkarriketak kontuan hartuta. Esku-hartzearen deskribapena ere egingo da.

4.1 Testuinguruari buruzko behaketen datuak

Lan hau Bizkaian kokatuta dagoen ikastetxe batean burutuko da. Guraso kooperatiba batenez, ikastetxearen kudeaketa familien, ikasleen eta profesionalen arteko elkarlanean egiten dutela esan daiteke. Ikastetxeak bi lerro ditu, 0-16 urte bitartean, non betidanik D eredua lehenengo hizkuntza moduan eskaini izan den eta ingelesa bigarrena. Sozioekonomikoki, maila ertaineko familiak dira gehienak, eta etorkinen kopurua nahiko baxua da.

Ikastetxearen metodologia aitzindaria da, berrikuntza asko txertatzen dituztelako. HH-n, umeen esperientzia, jolas, konfiantza eta bizipenetatik egiten dute lan, eta LH-n, ildo berdina jarraitzen da, adinera egokituta. HH-n eta LH-n, nahiz eta etapa bakoitzeko berezitasunak izan, zirkulazio librean lan egiten dute. Horrek, diziplinartekotasuna lantzeko aukera ematen du. DBH4-ra arte, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza da ikastetxeko oinarri metodologiko orokorra. Laburbilduz, ikastetxe osoan, proiektuka, talde kooperatiboetan, pentsamendu errutinak erabiliz eta ebaluazio hezigarriaren bitartez lan egiten da. Abiapuntua, ikaslea da, bera baita protagonista. Hori ikaslea aktiboagoa bihurtuz eta irakaslearen funtzioa, bideratzailea eta laguntzailea izanez lortzen saiatzen dira.

Aurrean aipatu den bezala, Haur Hezkuntzako, bigarren zikloko 5 urteko gelan egin da esku-hartzea. Gela honetan, 24 ikasle dira guztira, 11 neska eta 13 mutil, hain zuzen ere. Ez dago etorkina den umerik eta haien artean, Hezkuntza-premia berezietako haur bat dago, autismoa duena.

4.2 Elkarrizketen datuak

Irakasleei egindako elkarrizketei eta ikastetxean egondako denboran behatutakoari erreparatuz, aurrera eramaten den metodologiak (proiektuak eta zirkulazio librea) bat egiten du kompetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegiarekin eta diziplinartekotasuna lantzeko printzipioarekin, 237/2015, abenduaren 22ko Haur Hezkuntzako Dekretuan azaltzen den bezala. Hau da, metodologia adierazgarria da, haurren bizipenetatik eta ezagutzetatik abiatzen dena; inklusibitate eta ekitate printzipioa bermatuz, ikasleen gaitasun guztiak garatu direla eta arrakasta egon dela ziurtatzeko. Horretarako, arreta indibidualizatua ematen saiatzen dira, haur bakoitzaren aukerak eta mugak kontuan hartuta, eta aniztasunari erantzuna emanez.

Proposatzen dituzten proiektuak eta jarduerak egoera errealetan oinarritzen dira. Irakasleen ikuspuntutik, oinarrizko konpetentziak motibagarriak izateko eta garatzeko aukera emateko, ikaslea modu aktiboan inplikatu behar da jakintza bilatzen, ikasten, esperimintatzen, hausnartzen, aplikatzen, autoebaluatzen eta komunikatzen. Jokoa eta esperimintazioa garapen- eta ikaskuntza-prozesuaren ardatza izanda. Hori baita zirkulazio librearen metodologiaren bidez eta gelan lan egiteko moduaren bidez lortzen saiatzen direna.

Beste alde batetik, irakaslearen funtzioa, oinarrizko konpetentziak garatzen laguntzean, ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekari, gidari edo laguntzailea izatean oinarritzen da. Egoera nahiz testuinguru horiek egokiak izan behar dira garapen pertsonala eta soziala bideratzeko, arazo-egoerak ebazteko eta ingurunea ezagutu eta eraldatzeko.

Azkenik, ikastetxean erabiltzen dituzten ebaluazio teknikei dagokienez, behaketa zuzena eta sistematikoa, eta elkarrizketak (familiekin, gelako umeekin, taldearekin lan egiten duten beste irakasleekin) dira ebaluazio-prozesu teknika nagusiak. Horretaz aparte, ikaskuntza-irakaskuntza prozesu osoaren ebaluaketa orokorra egiten da, hobekuntza proposamenak egiteko helburuarekin, eta ikasleari ere haren burua ebaluatzeko aukera ematen zaio.

4.3 Lehenengo ondorioak

Lanean zehar azaltzen joan garen bezala, Covid19-aren egoeragatik murrizketak egon dira ikastetxearen metodologian. Horrek, musika eta psikomotrizitate gelak ixtea eta honen inguruko saioak alde batera uztea suposatu du.

Covid19-aren ziurtasun neurriak mantentzeko, zirkulazio librea maila berdineko taldeen artera murriztu da. Ondorioz, maila ezberdinetako beste geletara pasatu ezin direnez, aurretik zirkulazio librearen metodologiaren inguruan zehaztutako helburuak ez dira osotasunean betetzen. Adibidez, diziplinartekotasuna mugatu da, adin ezberdinetako umeen arteko harremana eta ikaskuntza desagertu da, askatasuna eta autonomia murriztu dira, eta sormena garatzeko eta esperimintatzeko aukerak urritu dira.

Beraz, egoera ikusita ipuin musikaletan eta mugimenduan oinarritutako esku-hartze bat planteatu da, honen bidez ikasturte honetan murriztutako gaitasunak indartzeko asmoz. Modu horretan, haurrek musikarekin eta mugimenduarekin kontaktu hurbila mantendu

dezaten, ikastetxeko metodologiarekin jarraituz eta arterako konpetentzia, konpetentzia motorra eta gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia indartuz, besteak beste.

4.4 Esku-hartzea

Espero da esku-hartze hau baliagarria izatea ikasleek, alde batera utzi den, musikaren arloan murgiltzeko eta haietzako berriak diren jakintzak barneratzeko. Aldi berean, esku-hartzean dauden jardueri esker, irakurmena, gorputz-adierazpena eta mugimendua indartuko dira. Beraz, gure esku-hartzearen bidez, aurrean aipatutakoaz aparte, adin ezberdinetako hurrekin praktikan jarri ezin bada ere, lankidetzaren eta kooperazioaren sentimendua areagotu eta landu nahi da. Gainera, emateak eta jasotzeak duen garrantzia azpimarratuko da. Esku-hartzean dauden beste zenbait jardueri esker, sormena, irudimena eta esperimentatzeko grina ere abian jarri daiteke. Modu horretan, haurren ikaskuntza ahalik eta esanguratsuen bilakatzen lagunduz, eta ikastetxearen metodologiari gehigarria den ekarpena edota hezkuntza-hobekuntza egiten saiatuz.

Aurrean azaldutako 5 urteko gela batean zentratuko garen arren, datu gehiago ateratzeko asmoz, esku-hartzearen jarduerak 5 urteko bi geletan eramango dira aurrera. Gainera, mugimendu librearen metodologiak bi geletan dinamika berbera eramatera bultzatzen dituen taldeak, zentzuduna iruditzen zaigu jarduera berdinak bi geletan egitea.

Ikastetxearen metodologiarekin bat eginez, esku-hartzea aurrera eramateko Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza erabiliko da; diziplinarteko lan-proiektu bat, hain zuzen ere. Proiektuekin lan egitean haurren aurre-jakintzak izango dira oinarria; haurrak entzungo ditugu eta haiek adieraziko dute zer nahi duten deskubritu, beraz ikasketa esanguratsua izango da.

Aurkezten dizkiegun ekintzak irekiak eta malguak izango dira, haietzako anitzak eta motibagarriak izanez. Haurren erritmo indibidualak errespetatuko dira eta aniztasuna kontuan hartuko da, ikasle guztiei aukerak emanez. Lan egiteko orduan hiru taldekatze mota erabiliko ditugu; talde handia, talde txikia eta bakarkako lana.

Familien parte hartzea eta inplikazioa ere garrantzitsua da. Lehenik eta behin familiei email bat bidaliko diegu, proiektuaren berri emanez eta haien parte hartzea eskatuz (*ikus 3.eranskina, 3.2.jarduera*).

Irakasleak ikasleak gidatu eta lagunduko ditu, pentsatzen, ikertzen eta gelan hainbat erabaki sortzen edota aztertzen. Modu horretan, sormen-prozesua sustatuz eta ikasleak

motibatuz. Proiektua aurrera eramateko, eskolako irakasle taldearen arteko koordinazioa ezinbestekoa izango da.

Abiapuntua **arazo-egoera** bat izango da: Herri Berri ipuinaren irakurketa, harentzako amaiera ezberdinak asmatzea eta gelan instrumentuz betetako kutxa bat aurkitzea (*ikusi 3.eranskina, 3.1.jarduera, Herri Berri ipuina osorik eta honen inguruko azalpenak irakurtzeko*). Modu horretan, ikasleak motibatuko dira eta proiektuan bete-betean sartuko dira. Era berean, proiektuaren amaieran lortu beharko dugun **ataza** planteatuko dugu (ipuinaren dramatizazioa egitea eta denon artean instrumentuak erabiliz txaranga bat osatzea).

Ikusiko dugunez, proiektu honek hainbat jarduera hartuko ditu bere baitan (*ikusi 3.eranskina*). Proiektua **lau fasez** osatuta dago: hasierako fasea, garapen fasea, aplikazio- eta komunikazio-fasea eta orokortze- eta transferentzia-fasea (*4.eranskina begiratu, non proiektuaren inguruko taula eta laburpen orokorra ageri den*).

1.- Hasierako fasea: Gaiaren aurkezpena egingo da bertan. Motibazioa transmititu behar da. Haurren ekarpenak eta hasierako jarduerak planteatuko dira, esaterako, zer dakiten eta zer ikasi nahi duten gaiari buruz.

2.-Garapen fasea: Bigarren fase hau luzeena izango da, ikaskuntza eraikiko duten jarduerak garatuko baitira, ikaskuntza berriak txertatu, aplikatu, finkatu eta egituratuko ditugu.

3.-Aplikazio fasea: Ikasitakoa aplikatu eta komunikatuko dugu (antzerkia, dantza...) Ikasleek amaierako emaitza ikusteko aukera izango dute. (Gure kasuan, Herri Berri ipuin musikaren antzezpena eta txarangaren grabaketa).

4.-Orokortze fasea: Jakintzen transferentzia beste egoera batera eramatea, hau da, antzerkia beste talde batzuen aurrean egitea, azalpenak beste gela batean ematea, bideoa etxera bidaltzea, etab. (Gure kasuan, familientzat, HH-ko beste taldeentzat eta haiek gelan ikusteko grabatutako antzezenaren bideoa).

Azkenik, aipatutako ebaluazio teknikei dagokienez, behaketa zuzena eta sistematikoa, eta elkarriketak (tutoreekin, gelako umeekin eta taldearekin lan egiten duten beste irakasleekin) erabiliko dira.

Aurrean esan dugun moduan, Herri Berri ipuina osorik asmatu ostean, honen konpetentziak, edukiak eta helburuak lantzeko hainbat jarduera burutuko ditugu. Jarduera anitzak eta guztiek egiteko eta gozatzeko modukoak diseinatzen saiatuko gara (*3.eranskinean jardueren inguruko azalpen sakonagoak ageri dira*).

1. JARDUERA	Herri Berri ipuina
2. JARDUERA	Musika-tresnak ezagutzen
3. JARDUERA	Ni naiz nire istorioaren protagonista
4. JARDUERA	Perkusio txikiko tresnekin erritmoa lantzen
5. JARDUERA	Kutxa magikoarekin irakurtzen*
6. JARDUERA	Instrumentu geometrikoak*
7. JARDUERA	Pandero jolearekin dantzan
8. JARDUERA	Aspertuta nago*
9. JARDUERA	Eskuineko eskua eta ezkerreko eskua
10. JARDUERA	Jausgailuarekin lankidetzeta jolasak*
11. JARDUERA	Herri Berri gara (antzezpena)

*Jarduera hauek denbora edo baliabide falta dela eta ez dira inplementatu.

237/2015, abenduaren 22ko Haur Hezkuntzako Dekretuan oinarrituz, hurrengo atalean esku-hartzearen bidez landutako konpetentzien analisia egingo da:

Hasteko, oinarrizko zehar-konpetentzien eta oinarrizko konpetentzia espezifikoen analisia egingo dugu. Alde batetik, oinarrizko zehar-konpetentziei dagokienez, Herri Berri ipuinaren inguruko esku-hartzearen bidez, eta hori lortzeko prozesuan egindako gainerako jardueren bidez dekretuan aipatzen diren bostak lantzen dira: Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia, Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia, Elkarbizitzarako konpetentzia, Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia eta Izaten ikasteko konpetentzia.

Beste aldetik, lan honen bidez oinarrizko konpetentzia espezifiko guztiak lantzen direla esan daiteke. Hala ere, batzuk besteak baino gehiago. Batez ere arterako konpetentzia, konpetentzia motorra eta gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia sustatzen dira.

Esku-hartzearen helburu nagusienetako bat mugimenduan eta gorputz-adierazpenean oinarritutako ipuin musikal bat sortzea delako. Arterako kompetenziaren barruan plastikarekin zerikusia duen guztia ez da asko lantzen. Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia ere nabarmen jorratzen da, ipuina abiapuntu nagusia delako, askotan baliabide bezala erabiltzen delako eta berari esker hurrek gozatu, nortasuna eraiki eta sentimenduak eta emozioak adierazi ahal dituztelako. “Herri Berri” eta “Eskuineko eskua eta ezkerreko eskua” ipuinekin landutako errespetua, elkarlana eta parte-hartzeari esker, bizikidetzarako trebetasun sozialak berenganatzen dituzte ikasleek, gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian guztiz murgilduz. Matematikarako, zientziarako eta teknologiarako kompetentziak neurri txikiago batean lantzen dira. *(Ikusi 4.eranskineko taula).*

Aipatzekoa da aurkeztutako proposamena irekia dela eta aldaketak egon daitezkeela, betiere ikasleen eta eskolaren interes eta nahietara egokituz eta malgutasunez jokaturik.

5. EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Gaiaren inguruan azterketa egin ostean eta prestatutako esku-hartzea aplikatu ondoren, emaitzak aztertu behar dira.

Pozik gaude proiektua aurrera eramatean lortutako helburuekin eta esku-hartzean egindako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin. Hurrek, ipuin musikalaren onuretatik etekinak atera dituzte. Jarduerak haientzako motibagarriak izateari esker, interes handia erakutsi dute eta gustura parte hartu dute, komunikazio-arauak eta parte hartzeko txandak errespetaturik. Gainera, lankidetzaren bezalako balioak garatu dituzte, eta konturatu dira denon artean lan eginez eta guztion laguntzarekin helburuak errazago lor daitezkeela. Hala ere, enpatiaren balioa lantzen jarraitu behar da, umeak txikiak direnean nahiko izaera egozentrikoa dutenez, asko kostatzen zaielako bestearen lekuan jartzea. Horrekin batera, arazoak edo gatazkak sortu direnean hauek konpontzeko haien artean hitz egiten hasi dira. Denbora honetan zehar, emozio batzuk kudeatzen eta horiei izena jartzen hasi dira. Horrez gain, musika-tresnei buruzko ezagutza handitu dute eta erritmoak jarraitzen trebatzen hasi dira. Amaitzeko, gorputzaren kontrola garatzen lagundu dieten mugimendu-jarduerekin, eta baita ipuinaren antzezpenarekin ere asko disfrutatu dute. *(Begiratu 5.eranskina, ebaluazio adierazleekin lotutako emaitzen taulak ikusteko).*

Ondorioei dagokienez, lanaren hasieran planteatutako helburua gogoraraziko dugu: “Mugimenduan oinarrituta dagoen eta haurren ikaskuntza garatzeko aberasgarria den ipuin musikalaren onurak arakatzea”. Horrekin batera, ipuin musikalarekin erlazionatutako jardueren bitartez, Haur Hezkuntzako curriculumaren alderdi ezberdinen integrazioa modu ludiko eta sortzaile batean bultzatu nahi izan dugu, arlo sozio-afektibo, psikomotor eta kognitiboaren estimuluen bidez, ikaslearen garapen integrala erraztuz. Orduan, curriculumaren, sortutako GRAL-aren eta esku-hartzea praktikan jarritako ikastetxearen helburuak bete diren ala ez hausnartuko dugu.

Lehenik eta behin, Vicente-Yagüe-k eta González-ek (2015, 6.or.) baieztatzen dute, musika eta literatura tekniken bidez, jakintza-alorrarteko modu batean lan egiteak haurren ikaskuntza-garapenean onurak ekartzen dituela. Kasu honetan, ipuin musikaletan oinarrituta sortutako esku-hartze didaktikoari esker, musikaz eta ipuinaren irakurketaz baliatuz, irudimenaren garapena, hiztegiaren lanketa, komunikatzeko gaitasuna, baloreen barneratzea eta taldeko giro positiboa eta eroso sortaraztea lortu dela egiazta dezakegu. Ildo beretik, ipuin musikolari esker, umeen arreta, irakurmena, koordinazioa, memoria musikala eta adierazpen-gaitasuna garatzen lagundu dugu. “La unión del cuento y la canción, reúne todas las condiciones para favorecer el ámbito cognoscitivo, el social-afectivo, el sensorial-motriz, y consecuentemente, la formación integral del alumnado” (Muñoz, 2003, apud Lorite, 2012, 1.or.). Hala ere, esku-hartzearen zenbait jardueretan estimulu kopuru berria zela eta (adibidez, musika-tresnak edota aurretik askotan hurbil izan ez dituzten zenbait material) taldearen arreta, eta ondorioz, kontzentrazioa eta hausnarketarako gaitasuna lantzea ez da guztiz lortu. Dena den, haur gehienek jarrera oso ona izan da eta parte-hartze aktiboa izateko gogoak izan dituzte ia momentu guztietan. Hortaz, ondoriozta daiteke, esku-hartze hau haien ikaskuntzarako baliagarria izan dela.

Denbora falta dela eta, instrumentu musikal ezberdinak eta, pertzepzio auditiboa garatuz, hauen soinua ezagutzea ez da guztiz lortu. Jarduera batzuetan kontzeptu eta ideia asko planteatu genituen, eta gero denbora gutxi izateagatik ezin izan genituen osotasunean garatu, edo arinegi joan ginen hurrek ondo barneratzeko astia izateko. Gainera, ikasgelaren programaketa eta ordutegiaren ondorioz, ezin izan genituen jarduerak errepikatu, eta askotan gauzak ikasteko eta ondo barneratzeko modua errepikapenaren bitartez da. Dena den, perkusio txikiko tresnetan zentratu, eta Herri Berri ipuinean agertzen diren bostak ondo ezagutzea lortu dugu.

Ipuin musikalaren antzezenaren atalari eta honekin erlazionatutako jardueri dagokienez, dantza eta mugimenduari esker, errespetua, askatasuna eta tolerantzia bezalako baloreak sustatu dira. Musikaren eta literaturaren arteko loturak ere hezkuntza balio ezberdinen ikaskuntzara bultzatzen ditu haurrak. Esku-hartzean planteatutako jarduera batzuk helburu komun bat lortzeko, sozializazioaren eta lankidetzaren garrantzia sustatzeaz aparte, elkarlanean aritzearen beharra eta partekatzearen plazerra berenganatzeko aproposak izan dira. Arguedas-ek (2006, 20.or.) aipatzen duen moduan, oso alderdi garrantzitsua da hori, kontuan izanda etapa hauetan zehar ikasleak haien egozentrismoagatik eta haien buruaz bakarrik kezkatzeagatik bereizten direla. Beraz, esku-hartzea egiten genuen bitartean, haurren arteko harreman batzuetan eta zenbait elkarrizketetan islatuta agertu bada ere, argi dago haurrek ez dutela guztiz barneratu, oraindik etapa egozentriko horretan murgilduta jarraitzen dutelako. Orduan, esku-hartzea pixkanaka-pixkanaka haien identitate pertsonala eraikitzen laguntzeko baliagarria izan da, baina momentuz haien nortasuna eta munduaren ezagutza garatzen jarraitzen dute.

Ipuin musikalak eta honen antzezenak erlazio, komunikazio, errealitatearen errepresentazio eta emozio-kudeaketa tresna moduan balio izan du. Modu horretan, bat-batekotasuna, sormena eta motibazioa bultzatuz eta emozioen adierazpena eta erregularizazioa indartuz. “La expresión corporal busca facilitarle al ser humano, el proceso creativo y de libre expresión y comunicación(...)” (Arguedas, 2004, apud Arguedas, 2006, 14.or.). Gainera, esku-hartzea, momentu horretan ikasgelan lantzen ari ziren emozioen eta lankidetzaren bezalako beste zenbait balorearen inguruko proiektuarekin batera lan egiteko eta hau indartzeko baliagarria izan da. Izan ere, irakasleei egindako elkarrizketei eta behatutakoari erreparatuz, sortutako proposamenaren metodologia ikastetxean aurrera eramaten den metodologiarekin ahalik eta gehien bateratzen saiatu gara. Modu horretan, konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspegia eta diziplinartekotasuna lantzeko printzipioa jorratuz. Hau da, haurren bizipenetatik eta ezagutzetatik abiatutako metodologia adierazgarria bermatu da.

Horrez gain, esku-hartzearen bidez, erritmoa eta koordinazioa lantzea eta gorputz-adierazpena garatzen hastea lortu da. Ikasleek haien gorputz-eskema garatzen joan eta gorputzaren kontzientzia hartu dute. Baina askotan horrelako ariketek haurrek energia askatzea eragiten dutela eta giro lasaia sortzen laguntzen dutela esaten den arren, diseinatutako esku-hartzearen bidez ez da guztiz lortu. Izan ere, oso talde urduria da, eta

agian haien ezaugarriak kontuan hartuta, erlaxazio, yoga edo horrelako teknikekin zerikusia duten zenbait saio planteatzea aproposa litzateke.

Lanaren garapenaren atalean aipatu dugun moduan, datu gehiago biltzeko asmoz eta ikastetxean zirkulazio librea nagusi denez, esku-hartzearen jarduerak 5 urteko bi geletan egin dira. Horrek, batez ere, ondorio positiboak izan ditu, informazio gehiago lortzea eta jarduerak birritan frogatzea eragin duelako, ateratako ondorioak indartuz. Adibidez, jarduerak aurrera eramateko orduan bi taldeen ezaugarriak konparatu ahal izan ditugu; talde bat bestea baino askoz ere urduriagoa baita. Orduan, planteatutako helburuak lortu ahal izateko, ikasle horien arreta berenganatzeko estrategiak bilatu behar izan ditugu. Horrez gain, bi taldeetan jarduerak ordu ezberdinetan egin direnez, haurren jarreraren eta arretaren orduak duen garrantzia argi ikusi dugu (arratsaldean nekatuago eta distraituago daude). Azkenik, gela batean egindako jarduerak ondoren beste gelan errepikatzeko aukera izatea oso aberasgarria izan da, lehenengoan egindako akatsengandik edota sortutako egoerengandik ikasteko eta bigarren taldearekin hobetzen saiatzeko aukera delako.

Curriculumak planteatzen duen moduan, jardueren bitartez, diziplinartekotasuna landu den arren, zenbait kompetentzien presentzia urriagoa izan da. Hala nola, zientifikoa edota matematikoa. Hori dela eta, hobekuntza proposamen batzuk planteatuko dira lanaren amaieran esku-hartzea hobetzeko eta gabezia horiek konpontzen saiatzeko.

Denbora edo baliabide faltagatik aurrera eraman ez diren jarduerak eta baita hobekuntza jarduerak, programatuta uztea erabaki dugu etorkizunean proposamen didaktiko bat egiteko baliagarriak iruditzen zaizkigulako. Modu horretan, esku-hartze global baten diseinua izango litzateke.

Familiekin izandako erlazioari dagokionez, oso positiboa izan da. Aipagarria da, ikastetxeak jarraitzen duen metodologian, familiekin dagoen kontaktua oso ugaria dela. Horregatik, ildo hori jarraituz, nahiko parte-hartze aktiboa egon da haien aldetik. Adibidez, haurrek musika edo instrumentuei buruzko ipuinak etxetik ekarri zituzten, eta familia bat baino gehiagok musika-tresnak jotzen eskatu genituen bideoak bidali zituen. Familiekin erlazio hori mantentzeko, amaierako Herri Berriren antzezpenaren bideoa bidali genien eta oso erantzun ona jaso genuen haien aldetik.

Azkenik, jarduerak Covid19-aren egoerara moldatuta bazeuden ere, eskolan mantentzen diren neurriak (higienea, tenperatura, distantzia...) izan ezik, jardueretan zehar

Covid19-aren egoerara egokitzeko moldaketak alde batera uzten joan ginen saioak aurrera joan ahala. Hori 5 urteko bi gelen arteko murrizketak ez daudela ikusi genuelako eta, umeentzako, eskola bizitzen ari garen egoera zail hau alde batera uzteko eta haien lagunekin ondo pasatzeko eta ikasteko ingurua dela hausnartu genuelako izan zen.

Laburbilduz, planteatutako esku-hartzea musikaren bitartez, ikasi eta aldi berean gozatu daitekeela erakusteko, irakurketaren eta ipuinen inguruko zaletasuna pizteko, talde-lanaren garrantzia azpimarratzeko eta mugimenduaren plazerraz eta sormenaz disfrutatzeke baliabide aproposa izan da. Beraz, jasotako emaitzak ikusita, ipuin musikalaren onurak argi islatu direla esan daiteke. Gainera, esku-hartzea Covid19-aren ondorioz ikastetxean alde batera utzi diren zenbait arloen presentzia (musika eta psikomotrizitatea, batez ere) berreskuratzeko hobekuntza izan da.

HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Planteatutako esku-hartzeak alderdi positibo ugari izan baditu ere, honen garapenean zailtasun batzuk sortu dira. Horregatik, etorkizunari begira proiektua hobetzeko zenbait atal aztertuko dira:

EGOERAK	HOBEKUNTZAK
Irakasleei esker, esku-hartzea aurrera eramateko ordutegiak moldatu diren arren, denbora falta dela eta, ezin izan ditugu planteatutako jarduera guztiak egin, gehiegi izan baitira.	Antolakuntzari dagokionez, jardueren kopuruaz kontzienteago izatea, hau kontrolatu ahal izateko.
Talde etako bat oso mugitua denez, batzuetan zaila izan da jarduerak aurrera eramatea. Batez ere, arratsaldeetan, nabaritu delako nekatuago zeudela eta arreta gutxiago mantetzen zutela.	Aproposa litzateke kontzetrazio handiagoa suposatzen duten jarduerak goizez egitea, eta dinamikoagoak direnak arratsaldean. Horrez gain, erlaxazio edo yoga jarduerak egitea komenigarria izango zen.
Covid19-aren inguruko egoeraren ondorioz, taldeen arteko harremanetan murrizketak egon dira, eta ezin izan dugu amaierako ipuin musikalaren antzezpena beste gelen aurrean egin ezta familiak ikasgelara gonbidatu.	Egoerari aurre egiten saiatu arren, antzezpenaren bideoa gelan ikusiz edo familiei bidaliz, Covid19-aren egoera amaitzen denean, aipatutako proposamen horiek berriro martxan jarri ahalko dira.

<p>Covid19-a dela eta, musika gela eta psikomotrizitate gela itxita daude. Horrek, jarduerak burutzeko espazio murrizketa nabarmena suposatu du.</p>	<p>Espazio murrizketa hauek leuntzen saiatu gara, ikasgela eta patioa erabiliz. Hala ere, egoera hau amaitzean esku-hartzea musika eta psikomotrizitate geletan egiteko proposatuko litzateke.</p>
<p>Baliabideei dagokienez, ordenagailuak eta arbela digitalak ez dute guztiz ondo funtzionatzen. Ondorioz, zenbait egoeratan ezin izan ditugu erabili edo zailtasunak eragin dituzte.</p>	<p>Konpontzen saiatu diren arren, ez da guztiz lortu. Beraz, egokiena ordenagailu berri bat lortzea litzateke.</p>
<p>Curriculumeko kompetentzia batzuk (matematikoa eta zientifikoa, batez ere) ez dira asko landu.</p>	<p>Asko landu ez diren kompetentziak indartzeko errefortzuko ariketak planteatu dira. <i>(Ikusi 6.eranskina).</i></p>

Aurrean aipatu den moduan, esku-hartzeak emaitza positiboak izan ditu ikasle zein irakasleengan. Horrek, ipuin musikala HH-ko baliabide gisa erabiltzea onuragarria dela baieztatu du eta hobekuntza bat suposatu du momentu honetan ikastetxean dagoen musikaren eta mugimenduaren arloaren murrizketetan.

6. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA

Lanaren nondik norakoak ikusita eta etika profesionalaren printzipioak eta datuen babesa kontuan izanda, GRAL-aren helburua betetzen laguntzeko diseinatutako esku-hartzean parte hartu duen ikastetxea zein jendea anonimotasunean mantentzea erabaki da. Era horretan, parte hartzaileen inguruan emandako informazio bakarria ikasmila, ikasle taldearen kide kopurua eta mutil zein neska kantitatea baino ez dira izan. Proposatutako jardueretan, elkarrizketetan eta asanbladetan izandako parte hartzea borondatezkoa izan da une oro, haurren zein irakasleen autonomia eta askatasuna bermatuz. Horrez gain, azaleratutako pentsamendu, iritzi edota sentimenduak ere anonimotasunean erregistratu izan dira. Bukatzeko, aipatu beharra dago esku-hartzea praktikan jarri den ikastetxea egingo denaren inguruan informatua izan dela eta lortutako datu guztiak partaideen eskutik eta zentroko gainerako kideengandik jaso izan direla. Konfidentziasuna errespetatuz, eskuratutako informazio guztia lan hau burutzeko baino ez da erabiliko.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Arguedas, C. (2006). Cuentos musicales para los más pequeños. *Actualidades Investigativas en Educación*, 6(1), 1-22. [10.15517/aie.v6i1.9205](https://doi.org/10.15517/aie.v6i1.9205)
- Arteaga, M., Viciano, V. eta Conde, J. (1997). *Desarrollo de la expresividad corporal: tratamiento globalizador de los contenidos de representación*. INDE.
- Bermejo, L. (2014). “Érase una vez...un cuento musical”. *Revista funcae digital*, (54), 15-24.
[http://www.fundacionfuncae.es/archivos/documentosarticulos/BERMEJO%20MARI N\(1\).pdf](http://www.fundacionfuncae.es/archivos/documentosarticulos/BERMEJO%20MARI%20N(1).pdf) -tik berreskuratuta (2020/10/04).
- Conde Caveda, J.L. (2001). *Cuentos motores (Vol. I)*. Paidotribo.
- Encabo-Fernández, E. eta Rubio, B. (2010). Suenan la flauta en... El Magreb. Cuentos musicales para la expresión y la creatividad en el aula. In Ramos, F. (Ed.), *Arte y ciencia: Creación y responsabilidad* (89-108.or.). Universidad de Granada.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3676930> -tik berreskuratuta (2020/12/21).
- Eusko Jaurlaritzak. (2016). 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa. Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak.
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf> -tik berreskuratuta (2021/05/27).
- García, B.M. eta Pérez, M. (2010). Cuento motor: “Una pizca de magia”. *EFDeportes.com, Revista Digital*, (149). <https://www.efdeportes.com/efd149/cuento-motor-una-pizca-de-magia.htm> -tik berreskuratuta (2020/10/30).
- Heras, L.M. (2009). La contribución de la Educación Física, la música y las artes escénicas al desarrollo integral del alumnado. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, (1), 1-12. <https://www.feandalucia.ccoo.es/indcontei.aspx?d=2819&ind=145> -tik berreskuratuta (2020/12/23).
- Homem de Almeida, B. eta Muñoz Sobrino, M. (1997). *Aprender a escuchar: Cuentos musicales para Educación Infantil*. CCS.
- [Janireren gela]. (2020). Herri Berri [Bideoa].
<https://www.youtube.com/watch?v=wOtWSrrLS0> -tik berreskuratuta (2021/01/03).
- Lorite, M. (2012). El cuento musical como recurso educativo y su aplicación en diferentes contextos. *Temas para la Educación: revista digital para profesionales de la enseñanza*, (18), 1-8.
<https://feandalucia.ccoo.es/indcontei.aspx?d=6354&s=0&ind=281> -tik berreskuratuta (2020/12/29).
- Maeztu, C. (2015). El cuento musical en Educación Infantil. *Revista Arista Digital*, (60), 8-16. http://www.afapna.com/aristadigital/archivos_revista/2015_septiembre_0.pdf -tik berreskuratuta (2020/10/07).
- Otones de Andrés, R. eta López, V. (2014). Un programa de cuentos motores para trabajar la motricidad en educación infantil. *La Peonza: Revista de Educación Física para la paz*, (9), 27-44. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4746783> -tik berreskuratuta (2020/10/28).

- Palacios, F. eta Parrilla, T. (2000). Organización y Didáctica de conciertos escolares. *Fundación Orquesta Filarmónica de Gran Canaria, Departamento Pedagógico*, (6), 13-17. <https://fernandopalacios.es/conciertos-escolares/> -tik berreskuratuta (2020/12/23).
- Piéron, M. (1998). Investigación sobre la enseñanza de la educación física. Implicaciones para los profesores. In Casimiro, A., Ruiz, F. eta García, A. (Ed.), *Nuevos horizontes en la educación física y el deporte escolar*, (199-224.or.). Junta de Andalucía, Instituto Andaluz del Deporte. https://view.officeapps.live.com/op/view.aspx?src=http%3A%2F%2Fwww.um.es%2Fdesarrollopsicomotor%2Fwqmaster-formacion-metodologia%2Fmaterial%2FDOC_5A.doc -tik berreskuratuta (2021/01/05).
- Romero, M. (2007). Los cuentos musicales en la Educación Primaria. *Revista de música culta Filomúsica*, (82). <http://www.filomusica.com/filo82/cuentos.html> -tik berreskuratuta (2020/10/04).
- Ruiz-Omeñaca, J. V. (2011). *El cuento motor en la educación infantil y en la educación física escolar: cómo construir un espacio para jugar, cooperar, convivir y crear*. Wanceulen.
- Serrabona, J. (2008). Los cuentos vivenciados: imaginación y movimiento. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, (62), 61-78. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2707396> -tik berreskuratuta (2020/12/29).
- Souto, X.M. (1998). El diario del profesor como instrumento de valoración. In De Vera, J.R., Tonda, E.M. eta Marrón M.J. (Ed.), *Educación y Geografía* (265-272. or.). Universitat d'Alacant. <http://socialsuv.org/wp-content/uploads/2019/05/El-diario-del-profesor-como-instrumento-de-valoraci%C3%B3n.pdf> -tik berreskuratuta (2021/05/11).
- Steilas. (2017). Ortzadar gara. <https://steilas.eus/2017/05/03/unitate-didaktikoa-ortzadar-gara/> -tik berreskuratuta (2021/01/03).
- Taberbero, B., Aliseda, B. eta Huerta, M.J. (2016). ¿Jugamos a los cuentos? Una propuesta práctica de animación a la lectura a través de la Educación Física. *Retos*, (29), 216-222. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5400874> -tik berreskuratuta (2020/10/31).
- Vicente-Yagüe, M.I. eta González, M. (2015). Literatura y música en educación infantil. Análisis teórico de un planteamiento receptivo interdisciplinar. In Gómez, C. eta Izquierdo, T. (Ed.), *Experiencias y recursos de innovación en Educación Infantil* (1-12.or.). Edit.um. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5875546> -tik berreskuratuta (2020/12/29).